


Izotz-gordailu handiak aurkitu dituzte Marteko ekuatorean

Marteko ekuatorearen sakonean dauden izotz-gordailuak lehen uste zutena baino askoz ere handiagoak direla baieztatu du ESAk, *Mars Express* zundaren MARSIS radarraren datuak analizatuta.



MFFko izotz-gordailuen lodiera erakusten duen irudia. ARG.: Planetary Science Institute/Smithsonian Institution.

Aurretik egindako beste neurketa batzuetan ere aurkitu izan dute izotza. Oraingo datuak Medusae Fossae Formation (MFF) izeneko eremuari buruzkoak dira, eta erakutsi dute izotz-gordailuak 3,7 kilometroko lodiera ere hartzen duela. Dirudieenez, izotza geruzaka dago antolatuta, eta tartean hauts-geruzak ditu.

Besteak beste, nabarmendu dute izotz-metaketa horiek ezin izango zirela sortu planetak gaur egun duen klimarekin. Hortaz, berresten dute iraganean beste klima bat egon zela. Klima ez ezik, planetari buruzko beste alderdi asko ezagutzeko ere baliagarriak dira orain aztertu dituzten datuak.

Nola ez, bizia egoteari buruzko aipamenak ere sortu dira ikerketaren harira. Hala ere, ESAk garbi adierazi du ezen, ura egotea bizitzarako baldintzat hartzen bada ere, ez dela baldintza bakarra, eta oraingoz ez dutela inolako arrastorik aurkitu bizia egon zela iradokitzeko. ●


Malariari aurre egiteko lehen hesi immunitarioa identifikatu dute

Malaria garaiz diagnostikatzeko eta tratamendu eta txerto eraginkorrak garatzeko aukera emango duen metodo bat aurkitu dute, *Plasmodium* bizkarroiak (malariaren eragileak) immunitate-sisteman eragiten duen lehen erantzuna identifikatu baitute.

[Ghanako eta Espainiako zenbait zentrotako iker-tzaileek elkarlanean egindako lanean](#), immunitate-sistemaren berezko erantzunaren sinadura aurkitu dute. Alegia, jakin dute zein proteina ezagutzen dituzten IgM antigorputzek, zeinak immunitate-sistemaren lehen hesia baitira.

Horretarako, malaria duten pertsonen serumetik antigorputzak isolatu dituzte, eta patogenoaren proteinekin kontaktuan jarri dituzte, proteinak ezagutzen dituztenak aurkitzeko. Horrela, IgM antigorputzen erantzuna sorrazten duten 110 proteina identifikatu dituzte.

Emaitza horrek aukera ematen du diagnostikoan eta tratamenduan zein prebentzioan aurreratzeko. Adibidez, sintomak agertu aurretik malaria diagnostikatzeko, odol-analisi bidez, eta tratamendu eraginkorrakoak eta txertoak garatzeko, immunitate-sistemaren erantzunean eraginda. ●



Globulo gorriak, haietako bat infektatuta. ARG.: Mae Melvin/USDCDC/CC O.